



San Sebastián, 15 de abril de 2004

Estimado/a ciudadano/a:

El Gobierno Municipal inició el pasado mes de octubre un largo y dificultoso camino para elaborar el Presupuesto de 2004 de forma participativa y consensuada con los movimientos ciudadanos y los grupos de la oposición. Pues bien, San Sebastián y los donostiarra cuentan a partir de este 15 de abril con un buen Presupuesto.

Para mí ha sido una espera dura y hasta desagradable, en la que he soportado desde críticas ácidas hasta descalificaciones personales. Confío en que haya merecido la pena y que el nuevo Presupuesto nos permita hacer que usted y todos los ciudadanos vivan un poco mejor y se sientan satisfechos de su ciudad.

Sus objetivos e inversiones constituyen una apuesta por la cohesión social y la revitalización de los barrios, por la sostenibilidad y el medio ambiente, el civismo y la cultura de la paz.

El Presupuesto nos permite abordar políticas de choque en materia de vivienda de VPO y en alquiler (Riberas de Loiola, Pagola, Buenavista, Nerecan, Etxarriene, Morlans... con más de 1.700 viviendas) y apartamentos tutelados para jóvenes y mayores (350); acometer nuevas infraestructuras viarias, poner en valor el patrimonio natural y urbano de la ciudad con la rehabilitación del teatro Victoria Eugenia, el Museo de San Telmo, el proyecto de Tabacalera; la creación de nuevos parques como Lugaritz, Ametzagaina, Amaiur y el arreglo de Cristina-Enea; nuevas Casas de Cultura, piscinas, etc.

Pero también las necesidades más cercanas a los ciudadanos, como arreglar los Hogares de Jubilados, mejorar la ayuda domiciliaria, reparar los colegios y asfaltar las calles.

Con el Presupuesto 2004, San Sebastián no se para y es responsabilidad de esta Alcaldía y de su Gobierno, pero también de la oposición, hacer los esfuerzos necesarios para fortalecer y humanizar más Donostia. Contamos con nuevos proyectos e ilusiones, 90 actuaciones en barrios e ideas para desarrollar el Plan Estratégico.

El Gobierno donostiarra reitera públicamente su voluntad de llegar a acuerdos con la oposición. Lo intentamos al ofrecer a la coalición nacionalista 14 pactos y compromisos para incorporar sus propuestas al presupuesto, así como asignarles la gestión de 8 áreas municipales, reiterando la aplicación del Pacto de Ciudad.


Sin embargo, su respuesta fue desalentadora. La coalición nacionalista, junto al PP, optó por la vía del bloqueo y el desencuentro presupuestario con el objetivo de dificultar la tarea de gestionar el interés general.

Mi compromiso ético como Alcalde con los donostiarra para defender los intereses de la ciudad, por encima de estrategias partidistas, me llevó a la presentación legal **de la cuestión de confianza ligada a la aprobación del Presupuesto**. Los partidos de la oposición han tenido un mes para presentar una moción de censura con otro candidato a la Alcaldía. No lo han hecho.

Concluido ese plazo, el proyecto de Presupuesto del Gobierno donostiarra ha quedado aprobado automáticamente. Pero superando tensiones y malos humores vamos a trabajar desde la tolerancia y la transparencia a favor del diálogo y los acuerdos con la oposición. En ese sentido, nos comprometemos a incorporar ideas y propuestas de la oposición para mejorar los objetivos del Presupuesto.

Tenga usted la seguridad de que con el paso de los meses irá comprobando la bondad y la utilidad social de este Presupuesto. Espero no defraudarles.

Cordialmente

A large, stylized handwritten signature in black ink, which appears to read 'Odon Elorza'. The signature is enclosed within a large, sweeping oval flourish.

ODON ELORZA
Alcalde de San Sebastián



Donostia, 2004ko apirilaren 15a

Herritar hori:

Udal Gobernuak bide luze eta neketsu bati ekin zion joan den urrian, 2004ko aurrekontua herritar mugimenduen eta oposizioko taldeen parte hartze eta adostasunarekin egitearren. Horri esker, Donostiak eta donostiarrek aurrekontu on bat izango dute apirilaren 15etik aurrera.

Itxaronaldia luzea izan da niretzat, are desatsegina ere, kritika ospintsu eta gaitzespen pertsonalak jasan behar izan baititut. Hala ere, merezi izan duelakoan nago. Izan ere, sinetsita nago aurrekontu berriak lagundu egingo digula zu eta herritar guztiak hobeto bizitzea eta zuen hiriaz harroago egotea ahalbidetzen duten baldintzak ezartzen.

Gizartearen kohesioa handitu, auzoak biziberritu, garapen iraunkorra sustatu, ingurumena zaindu eta zibismoa eta bakearen kultura indartzea: horra hor aurrekontuaren helburu eta inbertsioak.

Aurrekontuak bide emango digu proiektu handi asko gauzatzeko: etxebizitza arloan politika ausartak egiteko, babes ofizialeko eta alokairuzko etxebizitzak eskainiz (Loiolako Ibaiertzak, Pagola, Buenavista, Nerecan, Etxarriene, Morlans..., guztira 1.700 etxebizitza baino gehiago) eta gazte eta adinekoentzako apartamentu babestuak eginez (350); bide azpiegitura berriak egiteko; Donostiako natur eta hiri ondareari duen balioa emateko, parke berriak eginez (Lugaritz, Ametzagaina, Amaiur), daudenak egokituz (Kristinaenea) eta hainbat eraikini lotutako proiektuak aurrera eramanez (Victoria Eugenia, San Telmo museoa, Tabakalera); kultur etxe eta igerileku berriak egiteko, e.a.

Baina aukera izango dugu, baita ere, herritarrengandik hurbilago dauden bestelako proiektu eta beharrian batzuk betetzeko, hala nola, zaharren etxeak konpontzeko, etxez etxeko laguntza hobetzeko, ikastetxeak konpontzeko eta kaleak asfaltatzeko.

2004ko Aurrekontuari esker Donostia ez da geldituko. Alkatetzaren eta Udal Gobernuaren ardura da -baina baita oposizioarena ere- Donostia sendoagoa eta gizatiarragoa izan dadin beharrezko ahaleginak egitea. Proiektu eta ilusio berriak ditugu, 90 esku-hartze auzoetarako eta hainbat ideia Plan Estrategikoa garatzeko.

Donostiako Gobernuak berriz ere agertzen du, jendaurrean agertu ere, oposizioarekin akordioak lortzeko borondatea. Asmo horrekin, 14 hitzarmen eta konpromiso eskaini genizkion koalizio abertzaleari, haren proposamenak aurrekontuan aintzakotzat hartzeko, eta Udalaren 8 arlo kudeatzeko ardura eman genien, Hiri Ituna betez.

Baina haien erantzuna etsigarria izan zen. Abertzaleen koalizioak, PPrekin, blokeoa eta desadostasunaren bidea aukeratu zuen, interes orokorraren kudeaketari oztopoak jartzeko asmoz.

Alkatea naizen aldetik, donostiarrekin dudan konpromiso etikoak, hau da, estrategia alderdikoien gainetik hiriaren interesak defendatu beharrak **aurrekontuen onarpenari lotutako konfiantza galdea** -legezko aukera- aurkeztera bultzatu ninduen. Oposizioko taldeek hilabete izan dute zentsura mozioa aurkeztu eta alkatearen ordezkotzko hautagai bat proposatzeko. Ez dute horrelakorik egin.

Epea amaituta, Donostiako Gobernuaren Aurrekontu Proiektua berez eta besterik gabe onartu da. Guk, geure aldetik, tira-birak eta zakarraldiak albo batera utzi eta tolerantzian eta gardentasunean oinarrituko dugu gure lana, oposizioarekin hitz egin eta akordioak lortzearren. Horretarako, oposizioak Aurrekontuaren helburuak hobetzeko egiten dituen ideia eta proposamenak aintzakotzat hartzeko konpromisoa hartzen dugu.

Seguru egon, urteak aurrera egin ahala, Aurrekontuaren ontasuna eta gizarte balioa egiaztatuko dituzula. Huts egingo ez dizudalakoan.

Adeitasunez



ODON ELORZA
Donostiako alkatea